# EREMUA: GOBERNANTZA HURBILA ETA ERAGINKORRA

ILDOA/ERRONKA: DEMOKRAZIA-GOBERNANTZA EREDUA

| Arloa | Azpiarloa | Proiektua | Proiektu kodea | Deskribapena / egitekoa | Urteak 2024 | 2025 | 2026 | 2027 | Etengabeko prozesua bilakatzen da | AZALPENA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Auzoak | | Udala-auzoak harremana | Pr.01.01.00.01 | Udal batzordea eta auzo alkatetzak harremantzeko egitura/prozedura sortu | x | | | | BAI | Auzoetako zinegotzia izendatu zuen 2023an Udal Gobernuak, eta gaur gaurkoz, zuzeneko harreman etengabea dago auzo alkateekin, zein auzoetako jai batzordeekin. |
| | | Auzoen behar mapa | Pr.01.01.00.02 | Auzotarrekin batera, auzo bakoitzaren diagnosia egin | x | | | | BAI | 2023/2024 urteetan lehen diagnosia burutu ondoren, etengabeko harremanak unean uneko diagnosi eta ekintzak diseinatzeko aukera eskaini dio Udalari. |
| | | Auzotetako topaguneak sortu | Pr.01.01.00.03 | Auzoetako topaguneak, elkarlan mahaiak sortu | | x | | | BAI | Auzoetako zinegotzia izendatu zuen 2023an Udal Gobernuak, eta gaur gaurkoz, zuzeneko harreman etengabea dago auzo alkateekin, zein auzoetako jai batzordeekin. |
| Herritarren parte-hartzea | | Herritarren parte-hartze moduak landu | Pr.01.02.00.01 | Udal jardunean parte hartzeko dinamika berriak arakatu | x | x | x | x | BAI | Hainbat ekimenetan prozesu parte hartzaileak aktibatu dira agintaldian zehar, eta hauek egonkortu eta arautzeko parte hartze ordenantza egiteko konpromisoa hartu zuen Udal Gobernuak 2025ean, eta dagoeneko prozesua martxan dago. Udazkenean zehar irekiko da herritarrek ekarpenak egiteko tartea. |
| Udal irekia | | Udal irekia | Pr.01.03.00.01 | Udaleko ateak zabaldu eta herritarrak hartzeko ordu tarte publikoak sortu | x | x | x | x | | Dagoeneko herritarren hitzorduak bideratzen badira ere, webgune berriarekin batera hitzorduak eskatzeko bide zuzen bat eskainiko da. Datozen hilabeteetan martxan jartzea aurreikusten da. |

ILDOA/ERRONKA: UDALA HERRITARREN ZERBITZURA

| Arloa | Azpiarloa | Proiektua | Proiektu kodea | Deskribapena / egitekoa | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 | Etengabeko prozesua bilakatzen da | AZALPENA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Udal baliabideak | Enplegu publikoa | Udalaren baliabide beharrak aztertu | Pr.01.04.01.01 | Udalaren baliabideak berraztertu, egoera/garai berrietara egokitu ahal izateko | x | | | | BAI | Etengabeko prozesua bilakatu da. |
| | | Lanpostuen balorazio berria | Pr.01.04.01.02 | Lanpostuen balorazio berria egin, funtzioen eguneraketa bideratuz | | x | x | | | Dagoeneko lanketa abiatu da langile eta sindikatuekin. |
| | | Langileak egonkortu (1) | Pr.01.04.01.03 | Onartutako LEPak egokitu eta martxan jarri | x | | | | BAI | Behin behinekotasuna murrizteko estabilizazio prozesuak abiarazi dira, eta bere prozesua burutzen ari da. Aurrerantzean, prozesu hori etengabea izango da. |
| | | Langileak egonkortu (2) | Pr.01.04.01.04 | LEP berriak martxan jarri | x | x | x | x | BAI | |
| | Munizipalizazioa | Udal zerbitzuen munizipalizazio aukerak aztertu | PR.01.04.02.01 | Lizitatutako zerbitzuen azterketa egin eta udal zerbitzu zuzena emateko aukerak aztertu | x | x | | | BAI | Lehen azterketak egin ondoren progresiboki eta jasangarritasun irizpideekin burutzen hasi dira munizipalizazio prozesuak. Lehena kiroldegiko igeriketa monitoreak izan dira. Prozesua etengabea bilakatu da, eta berriak batzea aurreikusten da. |
| Udal antolaketa | Arreta zuzena | BAZ berritu | Pr.01.05.01.01 | Biztanleen arreta zerbitzu integrala bihurtu | x | x | | | | Obrak gauzatzen ari dira eta udazkenean zehar zerbitzu berritua martxan jarriko da. |
| | Barne antolaketa | Udal antolaketaren azterketa | Pr.01.05.02.01 | Udal sailen antolaketa aztertu eta koordinazio eremuak sortu | x | x | | | | Gai estrategikoen gaineko koordinazio eremuak sortu dira, edota zehar-lerroa lantzeko sailen arteko elkarguneak. Hurrengo urratsa izango da Udaleko antolaketaren hausnarketa abiatzea. |
| | Administrazio elektronikoa | Barne prozedurak egokitu | Pr.01.05.03.01 | Administrazio prozedurak eguneratu eta sinplifikatu | x | x | x | x | BAI | Prozesuaren prestaketa martxan dago. |
| | | Udal App-a sortu | Pr.01.05.03.02 | Hainbat zerbitzu aplikazio bidez baliatzeko aukera (txarteletik aplikaziora) | | x | | | | Udal aplikazio berria martxan jarri zen 2025eko abenduan, eta 2026an Udaleko txartel ezberdinak batu dira NIK txartel digitalaren bitartez. |

Analisi fasean

Diseinu/abiatze fasean (oharra: lizitazioak prestatzen, lizitazioa martxan-esleitu gabe)

Ezarpen/egikaritze fasean (oharra: lizitazioa esleituta, lanak martxan)

Ezarrita/eginda

# EREMUA: BIZITZEKO HERRIA

ILDOA/ERRONKA: TRANTSIZIO EKOSOZIALA

| Arloa | Azpiarloa | Proiektua | Proiektu kodea | Deskribapena / egitekoa | Urteak | | | | Etengabeko prozesua bilakatzen da | AZALPENA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 | | |
| Politika klimatikoak | Naturaguneak | Etxezarreta | Pr.02.01.01.01 | Eremua eta bertako eraikinaren segurtasuna bermatzeko lanak egikaritu | x | | | | | 2025ean burutu ziren lanak. |
| | | | | Jardin botanikoa berreskuratzeko lanak egikaritu | x | x | | | | 2026an burutu dira |
| | | Naturaguneen sarea | Pr.02.01.01.02 | Sarea osatzeko herritarrekin prozesua osatu | | x | | | | Etxezarreta parke berritua finkatu ondoren, eta Plazabizi prozesua amaitu ondoren (2026ko abenduan), bertako ikasketak jasoko dira ondoren naturguneen sarearen hausnarketa abiatzeko. |
| | | | | Sarea osatzeko proiektu/ekintza plana idatzi | | | x | | | |
| | | | | Sarea osatzeko lanak abiatu | | | | x | | |
| | | Lezetxiki | Pr.02.01.01.03 | Lezetxikiko plan zuzendaria idatzi eta planimetria osatu | x | | | | | Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean burutzen ari da. |
| | Basogintza | Baso sailen erosketa | Pr.02.01.02.01 | Udalak baso sailak eskuratuz baso espazio publikoa handitu | x | x | x | x | | 2024an prozesu bat ireki zen baso lurrak erosteko, eta, hau amaitzean, beste bat irekiko da. |
| | | Basogintza kudeaketa | Pr.02.01.02.02 | Udal basoak kudeatzeko modu berriak arakatu eta plangintza osatu | | x | | | | Plana idazketan dago. |
| | Uraren kudeaketa | Kontagailuak berritu | Pr.02.01.03.01 | Kontagailuen irakurketa telematikoa eta efizientea bideratu | x | x | x | | | Azken fasea gauzatzen ari dira. |
| | | Udal ur hornikuntza sistema aztertu | Pr.02.01.03.02 | Udal ur hornikuntza sistemaren diagnosia eta ekintza plana idatzi | | | x | x | | |
| Trantsizio energetikoa | Energia | Ekintza plana gauzatu | Pr.02.02.01.01 | Udalean ezarritako helburuak betetzeko ekintza plana garatu | x | x | x | x | | Argitzen prozesuak hainbat ondorio eta konpromiso utzi ditu eta Udalak bereak egingo ditu. Gainera, Ekiolarekin elkarlan azterketa bat abitu da. |
| | Plangintza | Mugikortasun plana | Pr.02.03.01.01 | Mugikortasun plan berria idatzi | x | | | | | 2024an abiatu zen plana, eta 2025ean onartu zen behin betiko dokumentua |
| | | | | Autobus geltoki berria non kokatu herritarrekin erabaki | x | | | | | 2024ko azaroan burutu zen herri galdeketa, eta Zalduspek irabazi zuen. |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mugikortasuna | Garraio publikoa | Autobus geltokia | Pr.02.03.02.01 | Autobus geltoki berrirako planeamendu egokitzapena eta proiektua idatzi | | x | x | | | Gaur egungo araudiak ez du jasota Zalduspen autobus geltokirik egiteko aukera, ondorioz, Zalduspe gunearen planeamendua egokitu behar da. Planeamendu hau aldatzeko prozesua martxan jarri zuen Udalak. |
| | | | | Autobus geltoki berria egikaritzeko obrak lizitatu | | | | x | | |
| | | Autobus zerbitzua egokitu | Pr.02.03.02.02 | Herri-bus zerbitzua aztertu eta egokitu | x | x | | | | Udala aztertzen ari da zerbitzu berria eta lizitaziora aterako da. |
| | Bidegorriak | Bidegorri sarea osatu | Pr.02.03.03.01 | Mugikortasun planaren baitan, bidegorri sarea osatu | | x | x | x | BAI | 2026ko udan Araba Etorbideko bidegorria egiteko berrurbanizazio obrak hasiko dira.<br><br>Horrez gain, hirigintza taktikoaren bitartez bidegorri berriak sortzeko exekuzio plana dago 2026-2027 urteetarako: Gipuzkoa etorbidea, Zarugalde kale osoa (Ikerreko errotonda arte), Nafarroa etorbidea eta Zerrajera kalea. |
| | Praktika berriak | Hirigintza taktikoa | Pr.02.04.01.01 | Autoentzako errei eta eremuak bizikleta eta oinezkoentzako prestatu | x | x | | | | Zarugalde kalearekin hasi da Udala, ondoren etorriko dira Nafarroa etorbidea eta Zerrajera kalea. |
| Hirigintza araudia | HAPO | Aurretiazko lanak/azterketak | Pr.02.04.01.01 | Parte hartze prozesua diseinatu | x | | | | | Azterketa guztiak egin dira urte hauetan, HAPOaren berrikuspena abiatu aurretik. |
| | | | | Irisgarritasun unibertsalerako plana idatzi | x | | | | | |
| | | | | Azpiegitura berdeen azterketa egin | x | | | | | |
| | | | | Zarata mapa idatzi eta inpaktu akustikoa neurtu | x | | | | | |
| | | | | Etxebizitza kopuruaren azterketa egin | x | | | | | |
| | | | | Genero ikuspegiaren azterketa osatu | x | | | | | |
| | | | | Eraikigarritasunaren azterketa egin | x | | | | | |
| | | | | Eragin soziekonomikoaren azterketa egin | | x | | | | |
| | | | | Eragin linguistikoaren ebaluazioa egin | | | x | | | |
| | | Aurrerakina | Pr.02.04.01.02 | HAPOaren aurrerakina onartu | | x | | | | 2027an abiatzea aurreikusten da. |
| | | HAPO hasierako onarpena | Pr.02.04.01.03 | HAPO dokumentua prest, hasierako onarpenerako | | | x | | | |
| | | Terrazen ordenantza onartu | Pr.02.04.02.01 | Herriko kaleetan eta plazetan ostalaritzako terrazak jarri ahal izateko araudia osatu | x | | | | | Hasieraz onartu zen martxoko udalbatzan, aho batez. Alegazioak aztertzen ari dira orain. |

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ordenantzak | TAO/OTA ordenantza berrikusi | Pr.02.04.02.02 | Auzo alkatetzekin batera, TAO sistema aztertu eta egokitu | | x | | | | | Aurretiazko kontsulta irekita egon da udaberrian, eta parte hartze prozesu bat irekiko da irailean, proposamen berria aurkeztearekin batera. |
| | | Kale garbiketaren ordenantza | Pr.02.04.02.03 | Kale garbiketaren ordenantza berrikusi | | x | | | | | Aurretiazko kontsulta ireki zen maiatzean, eta ekainaren 28ra arte lehen proposamenak jasotzeko irekita egon da. Uztailean zehar eragileekin parte hartze prozesua jarriko da martxan, eta ondoren, irailean, azken parte hartze ireki bat burutuko da, ordenantza berriaren lehen proposamena aurkeztearekin batera. |
| Herri lanak | Urbanizazio lan publikoak | Santa Teresa+Doneztebe portuko | Pr.02.05.01.01 | Urbanizazio proiektuan jasotako lanak exekutatu | x | x | | | | | Kaleen berrurbanizazio lan nagusiak amaituta badaude ere, hainbat etxebizitza eraikinetako obrak ez dira amaitu, ondorioz, etxe horien inguruko berrurbanizazio lanak amaitzea falta da, behin aldamioak kentzen dituztenean. |
| | | Altamira+Altamirazpi | Pr.02.05.01.02 | Urbanizazio proiektuko 1. fasea egikaritu | x | x | | | | | Berrurbanizazio lanak 2026ko martxoan amaitu zituzten. |
| | | Takolo-Goiru urbanizazioa | Pr.02.05.01.03 | D fasea (Uribe auzoa) Urbanizazio proiektua berraztertu eta egokitu | | x | | | | | Esleituta dago eta proiektua berridazten ari dira. |
| | | | | D fasea (Uribe auzoa) lanak exekutatu | | | | x | | | |
| | | | | E2 fasea (Uribarri etorbidea) lanak exekutatu | | | x | | | | |
| | | Udala auzoa | Pr.02.05.01.04 | Aurretiazko azterketak bideratu (topografia, partzelen mugaketa, geoteknikoa) | x | | | | | | Esleituta daude eta idazketa prozesuan. |
| | | | | Urbanizazio proiektua idatzi | | x | | | | | |
| | | | | Urbanizazio proiektuan jasotako lanak exekutatu | | | x | | | | |
| | | Grupo San Juan | Pr.02.05.01.05 | Urbanizazio proiektua idatzi | x | | | | | | Idatzita dago eta auzotarrei aurkeztu zaie. |
| | | | | Urbanizazio proiektuan jasotako lanak exekutatu | | x | | | | | Bizilagunekin obren exekuzioa koordinatzen ari dira Udaletik. 2026an zehar esleitzea aurreikusten da. |
| | | Gudarien plaza | Pr.02.05.01.06 | Parte hartze prozesua amaitu eta partekatu | x | | | | | | Gudarien plaza birpentsatzeko parte hartze prozesua abiatu zen 2023ko udazkenean, eta 2024ko ekainean amaitu zen. Prozesuak hiru aukera eskaintzen zituen, plaza parke bilakatzea, plaza oinezkoendako izatea edota plaza gaur egungo kotxe aparkaleku bezala mantentzea. Prozesuak ez zituen ondorio garbirik utzi, beraz, plazaren mantentze eta konpontze txikiak egitea erabaki du Udalak. |
| | | | | | | | | | | | Ez da berrurbanizazio lanik egingo |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Urbanizazio proiektua idatzi | x | | | | | Ez da berrurbanizazio lanik egingo, baina bai plaza inguruak txukundu, garbitu eta argiztatzea. Horiek zehazten ari dira eta datozen hilabeteetan gauzatzea aurreikusten da. |
| | | | Urbanizazio proiektuan jasotako lanak exekutatu | | | x | | | |
| Bestelako lan publikoak | Biteri plazako aterpea | Pr.02.05.02.01 | Biteri plazako aterpea egokitzeko proiektua idaztea | | | x | | | Aurreproiektua idazten ari dira. |
| | | | Biteri plazako aterpea egokitzeko lanak exekutatzea | | | | X | | |
| | Hileta zibilak egiteko gunea | Pr.02.05.02.02 | Hileta zibilak egiteko lekua egokitu | | | x | | | San Frantzisko elizaren erosketarekin, espazio bat eskaini nahi dio Udalak hileta zibilei. Aukera hori diseinu eta definitze fasean dago, ondoren hileta zibilen ordenantza idatzi eta aldatzeko. |
| Bideak | Natur bideak | Pr.02.05.03.01 | Natur bideak konpondu eta mantentzeko plana osatu | x | x | | | BAI | Urteroko lana bilakatu da, eta 2026 urtean Basolan2ko langileak funtzio hauetara bideratu ditu Udalak. |
| | Vasco Navarro | Pr.02.05.03.01 | Vasco-Navarro herriko ibilbidea duindu | | x | x | | | |

Analisi fasean

Diseinu/abiatze fasean (oharra: lizitazioak prestatzen, lizitazioa martxan-esleitu gabe)

Ezarpen/egikaritze fasean (oharra: lizitazioa esleituta, lanak martxan)

Ezarrita/eginda

# EREMUA: OINARRI KOMUNITARIOA DUEN HERRIA

ILDOA/ERRONKA: BERDINTASUNA

| Arloa | Azpiarloa | Proiektua | Proiektu kodea | Deskribapena / egitekoa | Urteak | | | | Etengabeko prozesua bilakatzen da | AZALPENA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 | | |
| Etxebizitza politikak | | Etxebizitza parkearen azterketa | Pr.03.01.00.01 | Etxebizitza hutsen erregistroa eta alokairu merkatuaren azterketa egin | x | x | | | | Azterketa amaitzen ari dira. |
| | | Gazteentzako alokairu dirulaguntzen errebisioa | Pr.03.01.00.02 | Hutsuneak identifikatu eta lerro berriak aztertu | x | x | | | | Etxebizitzaren diagnostiko eta ekintza planean errebisatu zen eta mantentzea jaso zen. |
| | | Larrialdi egoeratako etxebizitza parkea | Pr.03.01.00.03 | Beharren azterketa eta parkea handitzeko bidea egin | | x | x | | | Larrialdietarako etxebizitza berri bat jarri du martxan Udalak dagoeneko, eta, gutxienez, beste 3 martxan jartzeko aurreikuspena du. Hauekin, larrialdietarako etxebizitza kopurua bikoiztu egingo da. |
| | | Eremu tentsionatu izendapena | Pr.03.01.00.04 | Ejri eremu tentsionatu izendapena eskatu | x | | | | | Arrasateko etxebizitza diagnostikoa eta ekintza plana idazteko prozesua abiarazi zuen Udalak 2024an. 2025eko ekainean dokumentazioa Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zion, eta 2026ko apirilean Arrasate bizitegi-eremu tentsionatua izendatu dute. |
| Politika fiskalak | | Fiskalitate berri, progresibo eta berdeago bateruntz | Pr.03.02.00.01 | Fiskalitate berri, progresibo eta berdeago bateruntz politikak inplementatu | x | x | x | x | BAI | Lehen hiru tasa eta zergetan aplikatu da progresibitatea, gutxien duenak gutxiago ordaindu dezan. Gainera, 2026tik uraren tarifak etxebizitza bakoitzean erroldatuta dauden pertsonen araberakoak dira, uraren erabilera arduratsuagoa eta jasangarriagoa izateko. |
| | | Emakume Txokotik Etxe Feministara | Pr.03.03.00.01 | Dinamika partehartzailea: diseinua eta inplementazioa | x | x | | | | Etxe Feminista berria tren geltokian kokatuko da behar dituen espazioak bermatzeko. Eraikinak babes maila altua duenez, aurreproiektua Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztuko zaio obrak bideragarriak direla egiaztatzeko. |
| | | | | Eraikin berrirako lanak: proiektua eta exekuzioa | | x | x | | | |
| | | Politika feministak zeharlerro | Pr.03.03.00.02 | Mahai teknikoa sortu | x | | | | BAI | Mahai tekniko feminista eratu eta langileentzako formazioa bideratu da. Etengabeko lanketa prozesua bilakatu da. |
| | | | | Udal plangintza orokorra diseinatu eta abiatu | | x | | | | |
| | | | | Sailetarako plangintza espezifikoa diseinatu eta abiatu | | | x | x | | |
| | | Enplegua eta genero arrakala | Pr.03.03.00.03 | Enplegu politiketan genero arrakala ezabatzeko politikak landu | x | x | | | | |
| | | 1go Udal Berdintasun plana | Pr.03.03.00.04 | Diagnosia egin eta ekintza plana prestatu | x | | | | | Udaleko lehen Berdintasun Plana onartu zen Udalbatzan 2025eko maiatzean, eta, orain, garatze fasean dago (etengabeko prozesua bilakatuz). |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Feminismoak | | | | Berdintasun plana idatzi | | x | x | | | |
| | | Berdintasun kontseilu herritarra | Pr.03.03.00.05 | Arrasateko kontseilua sortu eta martxan jarri | x | | | | | Agintaldi hasieran ekin zion gobernuak lan ildo honi. Lehen bileren ondoren, kontseilua izaera sortu beharrean, koordinazio mahaia egitea erabaki zuten eragile feministek. Gaur egun egonkortutako jarduera du koordinazio mahai horrek. |
| | | LGTB+ arloa | Pr.03.03.00.06 | Herriko diagnosia egin | x | | | | | 2025ean burutu eta aurkeztu zen Arrasateko LGTBIQ+ errealitateen diagnostikoa eta ekintza plana. Gaur gaurkoz ekintza plana gauzatzen ari da, eta etengabeko lanketa bat bilakatu da. |
| | | | | EKintza eta formakuntza plana prestatu | | x | x | | BAI | Ekintza planaren garapenean. Etengabeko prozesua bilakatu da. |
| Babes egitura sozial eta komunitarioak | | Prebentzio eta esku-hartze komuntariorako mahaia | Pr.03.04.00.01 | Azterketa egin eta prebentzio eta esku-hartze komuntariorako mahaia sortu | x | x | | | BAI | Eragileen hausnargune mahaia eta udal mahai teknikoa eratu dira. Orain, hurrengo urratsari ekin dio mahai horrek: ekintza plana lantzea. Udal sailek lehenetsitako ekintza, aukera berdintasuna, eta berau sustatzeko estrategia partekatua. |
| | | Bizikidetza eta Aniztasunerako II plana | Pr.03.04.00.02 | Ekintza plana idatzi eta plana garatu | x | x | x | | BAI | 2024an aurkeztu zen plan berria, eta ordutik baliabide ekonomiko eta pertsonalak bideratu dira. Aniztasun Mahaia osatu eta indarra hartu du azken urteetan. Planaren 16 ildoetatik 14 martxan daude. |
| Hezkuntza | | Udal eskola kontseilua | Pr.03.05.00.01 | Udal Eskola Kontseilua martxan jarri | x | | | | | Kontseiluaren jardunbiderako araudia onartua. Paraleloki, Arrasateko Hezkuntza mahaia eratua eta ekintza plana idatzia. |
| | | Arrasatek-Hezi proiektua | Pr.03.05.00.02 | Proiektua berreskuratu, eguneratu eta garatu | x | x | | | | Hezkuntza Mahaiaren estrategiaren barruan txertatu da. |
| | | Monterron eraikina | Pr.03.05.00.03 | Herritarrekin erabilera zehatza definitu | x | x | | | | Eraikinaren etorkizuna eta erabileren aukerak aztertzeko parte hartze prozesu bat irekiko da udazkenean, eragile zein herritarrei irekia. |
| | | | | Proiektua idatzi | | x | x | | | |
| | | Zaintzaileak babesteko programa | Pr.03.06.01.01 | Ordainpeko zein ordaindu gabeko zaintzaileak babesteko programa garatu | x | x | x | | | Zain Sare proiektu pilotuaren bitartez landu dira lan ildo hauek, zaintzaileen eskubideak bermatu eta zaintzak duintzeko. Proiektua Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin bideratu da. |
| | | Etxeko langileentzat arreta soziosanitarioko doako formakuntza. | Pr.03.06.01.02 | Etxeko langileentzat arreta soziosanitarioko doako formakuntza eskaini | x | x | | | | |
| | | Sentsibilizazio eta prestakuntza kanpaina | Pr.03.06.01.03 | Zaintza lanean erantzukidetasuna sustatzeko testigantzak eta informazioa batu eta kanpaina martxan jarri | | x | | | | |
| | | Langile eta kontratatzaileentzako zerbitzu publikoa | Pr.03.06.01.04 | Langile eta kontratatzaileentzako aholkularitza eta bitartekaritza zerbitzu publikoa | | x | | | | |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zaintzen duen herria | Zaintzaileak zaindu | Zaintza lanak egiten dituzten enpresen klausulak aztertu eta egokitu | Pr.03.06.01.05 | Udalak azpikontratatutako enpresen kontratuen klausulak aztertu eta egokitu | x | | | | | Zerbitzuaren balorazioa egingo da eta langileen ekarpenak kontuan hartuz, zerbitzua kontratatzeko, administratiboki eta legearen markoa kontuan hartuz, baldintzak egokituko dira. |
| | Zaintza sare komunitarioa | Espazio komunak | Pr.03.06.02.01 | Zaintza sare komunitarioa osateko espazio komunak landu | x | x | | | | |
| | | La Merced proiektu publikoa | Pr.03.06.02.02 | Proiektuaren definizioa, lanketa, erakunde publikoen arteko lankidetza | x | x | x | x | | 2026ko ekainaren 11n erosketa gauzatzeko erabaki ofiziala hartu zuen Udal Gobernuak. Erosketaren sinadura eta ordainketa 2027ko lehen hilabeteetan gauzatuko da. |
| Gazteria | Osasuna | Osasun mentala | Pr.03.07.01.01 | Osasun mentalari lotuta, diagnosia eta prebentzio plangintza egin | x | x | x | x | BAI | Haur eta nerabeen diagnosia egin da eta bertan jasotako erronkei aurre egiteko, eragile eta udal sailen parte hartzeaz, ekintza plana idatzi da. |
| | Azpiegiturak | Gazteguneak egokitu (Musakola) | Pr.03.07.02.01 | Musakolako gaztegunea egokitzeko lanak egin | x | | | | | 2024an lokal berri bat erosi zuen Udalak, 2025ean egokitzapen obrak egin zituen eta 2026ko urtarrilean sartu zen zerbitzu berria martxan. |
| | | Ikasketa gela kolektiboa | Pr.03.07.02.02 | Kulturaten ikasketa gela kolektiboa sortu eta egokitu | x | | | | | 2024an Kulturateko eraikinean ikasteko gela autonomo bat egokitu zen, ordutegi zabalarekin. |
| | | Nagusien kontseilua | Pr.03.07.03.01 | Herriko nagusiak batuko dituen Kontseilua sortu | x | | | | | Dagoeneko Arrasaten osatuta dago ANAKON (Arrasateko Nagusien Kontseilua), eta honekin harremanean sakondu da, Udaleko egituran organo berria sortu beharrean. |

Analisi fasean

Diseinu/abiatze fasean (oharra: lizitazioak prestatzen, lizitazioa martxan-esleitu gabe)

Ezarpen/egikaritze fasean (oharra: lizitazioa esleituta, lanak martxan)

Ezarrita/eginda

# EREMUA: HERRI AKTIBO ETA EKINTZAILEA

ILDOA/ERRONKA: KULTURA

| Arloa | Azpiarloa | Proiektua | Proiektu kodea | Deskribapena / egitekoa | Urteak | | | | Etengabeko prozesua bilakatzen da | AZALPENA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 | | |
| Kirol Herria | Kirol azpiegiturak | Iturripe kiroldegia | Pr.04.01.01.01 | Gunearen proiektua idatzi eta planeamendua egokitu | x | | | | | 2024-2025ean zehar kirol taldeekin batera landu eta idatzi zen proiektua |
| | | | | Obrak lizitatu | | x | | | | Lizitazio prozesuan dago. |
| | | | | Obrak egikaritu | | | x | x | | Udazkenean zehar. |
| | | Musakola-Atoña-Mojategi kirol gunea | Pr.04.01.01.02 | Atletismo pista berritu | x | | | | | 2024an berritu zen |
| | | | | Guneraren mantetze beharrak aztertu eta exekuzioa bideratu | x | x | x | x | BAI | Etengabeko hobekuntza lanak egin dira, besteak beste:<br>**MOJATEGIN:** Errugby zelaia berritu, LED argiteria jarri, edota segurtasun neurrei berriak bideratu.<br>**MUSAKOLAKO KIROLDEGIAN:** Aldagelak berritu, makina berriak erosi, Spinning birtualaren zerbitzu berria jarri...<br>**UARKAPE:** frontoia berritu, Boulderra berritu, gimnasioko ordutegia zabaldu... |
| | | | | Eraikin berriaren proiektua lizitatu | | | x | | | Musakolako kiroldegia berritzea aztertzeko Iturriperen kiroldegia amaituta egotea ezinbestekoa da. Iturripeko kiroldegiak kirol instalazioen birdimentsionatzea ekarriko baitu. Kirol talde ia guztien egoitza berria Iturripen egongo baita. |
| | | Atxabalpe birpentsatu | Pr.04.01.01.03 | Lagatako eremua herri erabilerarako berreskuratuta, beharren arabera eremua birpentsatu | | x | x | | | Proiektu eta eskaera ezberdinak aztertzen ari dira. |
| | Natur guneak | Mendi ibilbideen sustapena | Pr.04.01.02.01 | Arrasateko itzulia, mugarriz mugarri | | x | | | | Mendi elkarteko kideekin lehen lanketa abiatu da. |
| | | | | Musakola-Barrenazar-Epele-Zaraazar-Meatzerreka-Monterron | | | x | | | |
| Arrasate herri kulturgilea | Kultur azpiegiturak | Kultur azpiegituren mapa | Pr.04.02.01.01 | Mapa egin, erabilerak zehaztu eta sarea osatu | x | x | | | | Mapa definitze fasean dago. Kultur azpiegituren zerrendan San Frantzisko txertatuko da baita ere, Udalak eliza erosita. |
| | | Amaia antzokia | Pr.04.02.01.02 | Egoeraren azterketa egin eta proiektua idatzi | x | | | | | Proiektua idazten ari dira, eta, aldi berean, honen bideragarritasuna aztertzen. |
| | | | | Obrak lizatu eta egikaritu | | x | x | | | |
| | Agenda | Kultur agenda | Pr.04.02.02.01 | Kultur agenda bateratua sortzeko lanketa egin | x | x | | | | ArrasatenTril agenda bateratua aurkeztu zuen Udalak 2025eko abenduan |
| | | Portaloia eraberritzeko obrak | Pr.04.03.01.01 | Arkua eraberritzeko lanak egikaritu | | x | | | | 2026ko urtarrila-otsailan berritu zen Portaloia. |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ondarea | Lanak | Zerrajerako arkua eraberritu | Pr.04.03.01.02 | Arkua eraberritzeko lanak egikaritu | x | | | | | 2025eko otsailean berritu zen Zerrajerako arkua |
| | | Markuleteko labea | Pr.04.03.01.03 | Labea ondare izendatu eta egonkortze lanak egin | x | x | | | | Arrasateko Udalak dohaintzan jaso zuen eta ondare izendatuta dago. |
| | | Gomeztio baserria | Pr.04.03.01.04 | Egitura berreskuratu eta balorean jarri | x | x | x | | | Baserriaren estruktura Arrasatera itzuli da Foru Aldunditik. Hau kontserbatzeaz Aldundia arduratu da, azpian oinarri bat jarriz hezetasuna hartu ez dezan, eta gainetik egoki estaliz. |
| Euskara | | Euskararen plan integrala | Pr.04.04.00.01 | Euskararen plan integrala osatu | | x | | | | Herrira begirako plana amaituta dago eta 2026/07/21eko Udalbatzara eramango da onarpenera. |
| | | Euskararen ordenantza | Pr.04.04.00.02 | Euskararen udal ordenantza osatu eta onartu | | x | | | | Udal barrura begirako plana 2024/12/03ko Udalbatzan onartu zen, udal hizkuntz irizpideekin batera. |
| | | Harixa egitasmoa | Pr.04.04.00.03 | Esparru sozioekonomikoan ergiteko egitasmoa bultzatu | x | | | | | Debagoieneko Mankomunitatetik Udal guztiekin elkarlanean abiatu dugu lana. |
| | | Euskara zeharlerro udalean; lana euskaraz | Pr.04.04.00.04 | Udalak euskaraz lan egiteko baliabideak jarri | x | x | | | BAI | Lanketa abiatu zen eta etengabeko prozesua bilakatu da. |
| | | Arrasateko euskalkia, hika eta noka | Pr.04.04.00.05 | Arrasateko euskalkia, hika eta noka lantzeko ekimen eta ikastaroak | x | x | | | | Appa hi! Aplikazioa erabilgarri dago eta ikastaroak eskaintzen dira, bai euskalkiarenak eta baita hikarenak ere. |
| Toki ekonomia eta zirkularra | Landa garapena eta elikadura burujabetza | Azoka berritu | Pr.04.05.01.01 | Gureztatu proiektua oinarri, eguneraketa eta garapena | x | | | | BAI | Azoka biziberritzeko helburuarekin, hainbat ekoizle eta eragilerekin batera Elikadura Mahaia abiarazi zen 2024an, elikadura burujabetza proiektuari hauspoa emateko. Honen ondorio da 2026ko ekainean aurkeztu berri den "KARANKETAN: Arrasateko Elikadura Mahaia", Udala sustatzaile eta parte hartzaile den espazio berria. Mahai horrek izango du ildo estrategiko honi bide emateko ardura. |
| | | | | Azoka berritzeko obrak egikaritu | | x | x | | | Aurrerantzean mahaiak ezarritako irizpide eta jardunbideei jarraika bideratuko da azokaren eta elikadura burujabetzaren lan ildoa. |
| | | Arrasateko ehun ekonomikoaren plana | Pr.04.05.02.01 | Arrasateko ehun ekonomikoaren erresilentzia azterketa egin | x | x | | | | Bailara enpresen elkartearen bitartez lan hau egiten hasia dago. |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ehun ekonomikoa | Coworking-erako espazioa sortu | Pr.04.05.02.02 | Azterlana egin eta espazioa sortu | | | x | x | | Azterlanean zehar Arrasaten coworkingerako hainbat espazio daudela ondorioztatu da. Horietako bat Garaia Parke Teknologikoan kokatuta dago, eta emaitza positiboak ematen ditu enpresa-sinergia berriak sortzeko. Bestetik, Debagoieneko Mankomunitatean hainbat espazio daude erabilgarri negozio berrientzat, eta horiek ere baliatzen dira gaur egun. |
| | | Herriko enpresak eta Udalaren topagunea | Pr.04.05.02.03 | Topagunea sortu | | x | | | BAI | Aldiroko bilerak Bailarakin, Ibai Arterekin eta BNIrekin. Etengabeko prozesua bilakatu da. |

Analisi fasean

Diseinu/abiatze fasean (oharra: lizitazioak prestatzen, lizitazioa martxan-esleitu gabe)

Ezarpen/egikaritze fasean (oharra: lizitazioa esleituta, lanak martxan)

Ezarrita/eginda